

*ZE EINGO DIOGUN BA*



© Xabier Galarreta

\*\*\*k alde egin izanak ez zion bizitza goitik behera inarrosi. Aspalditik begiratzen zien gauza guztiei mirari bati begiratzen zaion bezala, alde mistikorik gabe baina: ikusle baten urruntasun, hoztasun berberarekin. Leihotik kaleari so jarri zen. Eta puska batean hala iraun zuen, kaletik begia kendu gabe. Semea etorri zitzaion bat-batean gogora. “Lana utzi al duk?” galde egin ziolarik, ahots trufagarri halako batez. “Burutazio bikaina!”. Gau berandu zen. Gauak hiria bere altzoan gorde izan balu bezala zen. Kaleko kafetegiek ateak itxiak zituzten. Zigarro bat berriro piztu ondoren, bere baitan egin zuen: “Hogeita hamar urte eta oraindik jarraitzen dik kitarra elektrikoa jotzen... Eta solfeorik jakin gabe gainera!” Barretxo bat eskapatu zitzaion. “Eskerrak gaztetxearen aldeko borroka utzi duen; kasik agure-etxea baitzen hari zegokiona”. Beste barretxo batek ihes egin zion. Helbururik gabeko semea, amets-trafikatzailea... Tabakoak eztula eragin zion. Itzaltzea erabaki zuen. “Berdin zio”, pentsatu zuen. Haren osasuna gero eta kaxkarragoa izaki, itxaropena galdua zeukan. Zigarro bat edo beste erretzeak ez zuen larregi kezkatzen. Halabaina, bizimodu osasuntsuarekiko bere zaletasuna ezin itoarazi, ezta bere bizitzako azken uneetan ere. “Ikasle-denboran denak ibiltzen zituan hire inbidiatan. Zer gertatu zen? Zergatik eman huen amore bat-batean?” Galdera entzunik, semea irriz karkailaka hasi zitzaiola gogoratu zuen. Hari ere barregarria iruditu zitzaion nonbait, berak ere ekin baitzion barre egiteari. Handik aurrera,

kasik ohartu gabe, biak elkarrengandik aldenduz joan ziren. Sukaldeko erlojuari begiratu zion. Hamabi eta erdiak pasatxo. Gogaiturik, erlojuari begiratu zion berriro, lotara *benetan* joateko ordua noiz helduko. Kafe bat prestatzea deliberatu zuen, ohiz kanpoko bakardade hura nolabait zuritu nahian. “Etxe honetako isiltasuna benetakoa duk”. Fluoreszentearen burrunbatxoari adi geratu zen. Atseginduta, burua ezker-eskuin mugitu zuen. Bere bizitzan zehar jasandako auzolagun zaratatsu guztiak etorri zitzaizkion gogora. “Tira, laster ez nauk izango inongo zaratari erreparatzeko gai. Hala espero diat, behintzat”, irrika. Kafea minutu gutxien buruan prest zegoen. Pentsatu zuen ezen mundua, berak ikusten zuen moduan, erabat ezezaguna zitzaioa. “Batzuk”, pentsatu zuen, “bizitzako kontuetan profesionalak dituk. Nik, ordea, mundu honetatik abiatzeko ordua gero eta gertuago ikusita ere, urrats erabakigarririk emateko guztiz ez gauza nauk. Heriotza honek nirekin zerikusirik izango ez balu bezala...”. Hasperen eginik, jaiki eta kafe-kikara utzi zuen harraskan. Xorrota ireki eta urez bete. Gero, berriz jarri zen kalera begira, eta arestiko barne giroan bildu zen. Bi urte lehenago alde egindako emaztearen aurpegia irudikatu zuen. Gero, berriz ere sendagilearen doluzko hitzak: “Minbizia. Ez dago zer eginik. Damu dut”. Ezin ahalako ezintasuna sortzen zion barrutik jaten zuen minbiziaz gogoratzeak... “Oraintxe, hain zuzen, eskuak bete opari neuzkala... Oparirik onena gainera: denbora. Erretiroa hartzeko hilabete eskas falta

zitzaidanean...” Batzuen tragedia, besteen aberasbide, pentsatu zuen garratz, semeari utziko zion guztia buruz zerrendaturik. Oroitzapenen kutxan mira eta mira zegoen, bere buruari jositako sentimendu urrikaltsuaz arnegaturik. “Ze ingo diogun, ba” hasperenka, “Mundua bezalakoxeko istorio zaharra duk”. Ehunka urtean bizi izan balitz bezala sentitzen zen. “Gaur gero, zerk harrituko nau, ba?”. Iruditzen zitzaion egundo ez zuela izan egun haietan bezainbeste oroitzapen, sentsazio, damu, pozkario... Pentsamenduak denak ala denak ere labaindu egiten zitzaizkion, ezerezero buruz. “Zer ote da hiltzea. Seinale bat ote... Zer dela-eta izan behar dugu hain zentzu ezkorra heriotzari buruz? zergatik ezin dugu heriotza eta itxaropena biak lotu...? Galdeak egiteaz inoiz ez asebetarik, gero eta galde gehiago egiten zizkion bere buruari, alferrik... “Xarmangarri zegoen betiere”, alaba hilaren argazkiari begira. “Sentimendu-apurrak dituk hauek; ehunka urteko zuhaitza azkenetan zegok, hurren da eta. Lehenago edo beranduago, bizitzak ostiko bat ematen dik. Hori da bizitzatik espero daitekeen ia guztia. Beltzune madarikatu hau... Eta semeari eskutitz bat idatziko banio... Nire eritasunaren jakitun egongo haiz honez gero...” Euliak eskuaz nola, halaxe uxatu zuen ideia. “Nire doluminik bizienak”, irudikatu zituen bere auzolagunak, bere hilezkizunetan. “Heriotzako itxarongela asko zeudek. Nork berea zeukak. Hauxe duk nirea. Ze ingo diogun ba...” Bazirudien onartu egiten zuela bere zoria. Ardoa edateari ekin zion, noiz botila batetik noiz bestetik. Erreserbako

ardoak. Arabako Errioxakoak. Bikainak. “Minbizia gorabehera, oraindik ardo ona dastatzeko gauza nauk”, barrez. Ostera ere semearen alde lerratu zitzaion pentsamendua. “Ene ardura bete besterik ez nian egin; ezin izan nahikoa ordea...”. Eta halako moldez garratzu zen, ardoari bota baitzion errua. Botilekiko armairura jo zuen. “Ummm. Beste bi erreserba gelditzen dituk oraindik. Ondo.”. Gero, mahairantza egin zuen berriro. “Gizon guztiak zentsatzen dituk, baita nire semea ere. Egunen batean... Agian, nire heriotzak astinduko dik; balioko zioz gizontzeko; den-dena ez dela txantxa ohar dadin.”. Azkenekoaz gogoeta egin, eta hartan sinetsi nahi izan zuelarik, arreta desbideraturik, kontua erabakita utzi zuen. “Musika, pintura, liburuak... Horiek behintzat maite dizkik. Egia esan, esku onetan zegok” pentsatu zuen, bere burua adoretu nahirik. “Hilean bi sos irabazteko guztiz ezgauza izaten jarraitzen badu ere”, burlaizean. “Arkakuxoak baino alferragoa duk. Ziur nire gorpua erretzea eskatzen duela, hilkutxa garraitu beharrik ez izateko”, irri karkaila batez. Ontzia ertzeraino bete zuen ardoz. “Hori bai, bere belaualdiko morroirik zoriontsuena bera duk, hori onartu beharra zegok... baina baita zorritsuena ere”, barre-algara. Kasik barre-karkailarekin batera, min sorgorra sentitu zuen bular aldean. Mina biziagotuz joan zen, baina laguntza eskatzeko adorerik izan ez, eta bere horretan abandonatu zen. Mina infernu zitzaion, borreroak bere atea jo izan bailuen. Gero, poliki-poliki, mina gozatuz joan zen, harik-eta erabat desagertu zen arte. Corelli-ren pieza bat jarri

zuen musika-tresnan. “Barrokoren bat entzuteak on egingo zidak”. Kuxin erosoekiko besaulki batera jo eta bertan etzan zen. “Semea... oraindik ez zioat ezer esan... Berdin zioak. Goizago edo geroago jakingo dik”. Semeari bere osasun egoera azaltzea Txindokira igotzea bezain astuna zitzaion. “Bai ataka gaiztoa hau, baina... ze ingo diogun ba”.